

BETELEMeko ARTZAINAK

Nor zer eta nun diren

AITASO: artzain zaharra
NATAN:
ALNER: bi adinen arteko lau artzain
AKIBA
JONATAN
JOHAÑI: artzain gazteño bat
AINGERUA

I

(Zonbait artzain su baten inguruan berotzen egoki, batzu xitxuketa, bertze batzu gaztain jaten eta hola)

NATAN: Nik ere ixtorio bat badakit, joan den neguan Matias zaharrari aditua, gaur bezala ardi zain ari ginen gau batez, su baten inguruan...

ABNER: Zoin duk? Zoin?

NATAN: Bildotxarena!

AKIBA: Hogoï soseko bat joka nezake bildotx lehertu edo hotzak hil batez mintzatuko zaikula.

NATAN: Behatzu hortik! Irri egitekoa dut, ene ixtorioa!

DENEK: Errak ba... errak... Emak berehala...

NATAN: Jerusalemen Antonia erraiten dioten dorrea eraikitzen ari zuten: badakizue, orai gobernadorea egoiten baita? Hura... Zer nahi langile bazen, alabainan: arotz, hargin, zurgin...

ABNER: ... erregeren sorgin!

AKIBA: Hago ixilik, hi!

NATAN: Ixaka peontzan ari zen, morteiuru -karrean uste dut, eta lanetik lekora, harri lauza handi batzuen gainean jarririk, langilek beren othu=oruntza egiten zuten, ogi eta jaki, zakuan ekharri zurenetik jan eta jan...

Eta badakizue nik bezain ontsa nolakoa den Ixaka zekhen hori bethini, bibani eta cro-ni? Bertzeak ur hotzetik ari zirelarik harekj xahako alimale bat arno... gordetzen zuen, eta nehori jasta ere eskaini gabe, xurka-xurka ari zen xokoan, haur gosea ttittitik bezala.

Ximun, lehenik ohartu baitzen Ixakaren jokoari, laguneri erran zioten: "*Hitz eta promes dautzuet egun batez ordaina emanen diotala!*".

Hain xuxen bildotx bat funditu baitzizaion azeri arte batean, behar izan zuen hil eta jan. Ximunek biltxkia ekharri zuen lantegirat eta eguerditan lagun guzieren partitu, salba Ixakari... Ixaka, nehun ez zauken: haragi puxka hoik ikusten zituen, baratzuti zizterrak ageri, bafada goxo bat zariotela: begiak argi-argiak zituen, aburina ere ahorat jauzia. Segur ezagun zen bilxkia gogotik jastatuko zuela harek ere... Eta Ximunek galdegin zion, maltzur-maltzurra: "*Errazu, Ixaka, maite duzua bildoxki hotza? -Maite dudanetz? Dudarik baduzuia? -Orizu, bildoxki hotzaren jateko, aski duzu bezperatik errearaztea!*".

DENEK (irri): Ha, ha, hi, hi!...

NATAN: Hango irriak! Giza-gaizo Ixakak ez zuen holako arraposturik uste!

AKIBA: Ez ahal zitzaion guti gaitzitu!

ABNER: Zer mutjuttekoa!

AKIBA: Hik errak!

AITASO: Eta hik, Johaño, ez duk deusik erraiten!

AKIBA: Zertan duk gogoaz?

JOHAÑI (*ezti-eztia*): Deusetan... Hemen beha nago... Pindarrak ikusten ditut ilhaunekin igaiten, eta egurra entzuten hor intzirika, errtzen ari... Oixtion ene buruari galdeka nindagon, ea norat doatzin gauza pollit horiek, eta gu ere hola suntsitzen girenetz, hiltzeko tenorea heldu denean...

AITASO: Pentsamendu bitxiak dituk, mutxikoa! Ez duk holako ametsi atxiki behar... Emak kantuño bat: hobe duk...

JOHAÑI (*kantuz, bertzek polliki laguntzen dutelarik noiztenka*):

*Aldapeko sagarraren adarraren puntan,
puntaren puntan
Txoria dago kantari
Txiru-li-ruli, txiru-li-ruli,
Nork aditzen othe dut kantu eder hori!*

*Zubiburu zelaieko oihanaren zolan,
Zolaren zolan
Lili bat bada, beilari.
Txiru-li-ruli, txiru-li-ruli,
Nork bilduko othe du lili xarmant hori!*

*Mende huntan, jasan dutan bihotzeko pena,
penaren pena
Nola behar dut ekharri?
Txiru-li-ruli, txiru-li-ruli,
Zuk, maitea, har-azu ene pena hori!*

ABNER: Kantua ez duk itsusia, bainan ez duk biziki alegera.

AITASO (*urrunerat so*): To! Hantxeko zaldia, hesiari kontra? Ezagutzen duzue?

AKIBA: Barttoloena da naski!

NATAN: Habil haren kasatzerat Johañoi! Etxerat joan dadin!

(*JOHAÑI badoa eta arrabotsa entzuten dute*)

ABNER: Zaldiz mintzo girenez gero, aditu duzue Apolonen ixtorioa?

DENEK: Ez, ez... konda zak... konda...

ABNER: Kafarnauneko hondar merkatuan zaldi lasterrak ba omen ziren, eta zaldi lastekari famatuenetan batto bazen, Apolon erraiten ziotena... greko paganoen jainko faltsuari bezala. Bainan jainko faltsu hau etzen asto pullo bat baizik!

DENEK (*irri*): Ha, ha, ha...

ABNER: Beraz, Kuakin, Jakobe eta Kaxketa, hiru miserable, sosaren usainik ere ezagutzen ez zutenak, hurbildu ziren lasterketako pentzerat, behar zurela zerbait ikhusi, eta kitorik..., kitorik sartzeko lanak baitziren ordean! Heldu dira bada hiru lagunak, lerro-lerro, billeten hartzeko etxola ttipi haren aintzinerat eta hortik pentzeko keetarat. Hor gure Kuakin, burua gora, ahal bezanbateko jaun-aire bat hartuz, iragaiten da, erranez boz ezti batekin: "*Apolonen Nausia!*". Keetazainek utzi zuten pasatzerat.

Jakobek aise atxeman zuen, harekere, behar zuen gerurra, eta boz idor batekin erran zuen: "*Apolonen maretxala!*". Utzi zuten pasatzerat deus trabarik gabe.

Kaxketaren aldi zen orai. Buruari hazka hasi zen, Apolonen nausiaren eta maretxalaren ondotik, ez jakinez zer pentsa. Bet-betan zerbait jin zitzaion gogorat... "*Banuk!*"... Bortzpasei urhats eginik gibelerat, bulta hartzen du, eta tximista bezala iragaiten da keetazainen artetik, oiuhu eginez: "*Apolon ber-bera!*".

DENEK (*irri*): Ha, ha, ha...

AKIBA: Ez duk gaizki pentsatua!

NATAN: Hori pentsatu zuenak, ontsa afaldu-eta pentsatu zian.

AITASO: Ez dakizue zer pentsatu dutan nik?

DENEK: Ez!

AITASO: Trixte dela egiazki mundu huntan eremaiten dugun bizia! Bethi nor nola atxemanen dugun ari gira, elgar-enganatzuz, ez baginu bezala aski miseria, gure ezinbertze, eritasun, dolu eta holakoekin.

JOHAÑI: Ba, ni ere ene buruarekin pentsaketa ari nintzen oixtion, egurrak intririka ari baitzen, su lamén erdian sofritu balu bezala... oki berean entzuten balira ere betan, sofritzen duten jende guzien oihuak, kolpatuen uhuri, doluan direnen nigar eta hipa, hiltzen ari direnen azken xotinak-oisus! Zer ikharagarriko harramantza litakeen! Hiltzeko ere aski balitake!

ABNER: Hago ixilik, haurra. Nardatzen gituk hire zozokeriekin! Bertzenaz ere, Jainko maitea Jainko ona duk, zer debru! Eta hitz-eman zaukuk madarizione guziak finituko direla egun batez. Ez da hala, Aitaso?

AITASO: Ba, hala duk, Abner. Ene aita zenak profeta xahar baten kantua bazakian, Mesias hitz-emaiten zaukuna.

JOHAÑI: Kantua badakizu?

AITASO: Ez, dena ez, bainan huna halere zonbait kobla
(Airea: *Batzerretik bazterrera*)

*Betlehem herri ttipia, oi ethorkizun handia!
Birjinak duke seme bat, Nausi guzien nausia!
Jainkoa gizon, gizona Jainko! Zer gauza miresgarria!*

*Mesias, errege jauna, ez duzu zer jan zer edan
Zer duzu iltzez josia zuhaitz hortarik dilindan?
Huna bet-betan hilen artetik nun ziraden pizturikan!*

*Zuzentasun, amodio, argi eta bozkario
Jaun horrek ekharriren tu, nehok ez duke hastio;
O bai bethikotz, hari eskerrak, zorigaitzari adio!
Bertzerik ez dakit...*

NATAN: Gauza ederrak dira, bainan ez othe... ederregiak?

ABNER: Errazu, Aitaso, sinesten dituzu ixtorio horiek guziak? Betelemetik holako Salbatzaile bat sortzea, ez da entrabaleko gerthakaria!...

AITASO: Zer nahi duk, muthikoa! Nunbait sortu behar dik: hik herria ttipiskoa atxemaiten dukala, lehenago David Erregea ere artzain-etxola batetik athera zuian.

ABNER: Funtsean hala da!

AKIBA: Ba, bainan birjina hoi, ete errege horren miseria, hiltzea, hobitik jalgitzea, nehoiz ikusi ez diren gauzak dira!

AITASO: Alabainan, gerthakari bakotxa ez duk behin baizik gerthatzen gizagaizoa, edozoin izan dadin!

AKIBA: Ba eta hala duk hori ere...

ABNER: Eta noizko dituzu kanbio eder horiek oro? Uste duzu hemendik eta zonbait urthe barne mundu guzia zuzen eta xuxen ibiliko zaikula, den gutieneko makhurrik gabe?

AITASO: Ez diat sekulan holakorik erran muthikoa: Ene aita zenak, ainitz ikusia eta ikasia baitzen, erraiten zian: "*denbora duk denbora, gauza guzien moldura*". Eta eni iduritzen zaitak Mesiasak ez urtheak, bainan mendeak beharko dituela milaka, gizonen biltzeko eta jendetzeko! Haatik gauza hauien abiadura edo hastapena, nehok ez zautak kaskotik jaliko, biziki hurbila dugula!

DENEK: Zertako? Zertako?

AITASO: Ezagutzen duzue, dudarik gabe, Zakarias zaharra?

NATAN: Zazpi beleen ithurriaren ondoan egoiten den artzain zaharra?

AITASO: Ba hura!

JOHAÑI: Haren mandoak begi bat beltza eta bertzea urdina baitu?

AITASO: Hura eta bera!... Ez da gero nornahi Zakarias zaharra! Zeruko izarrak, arthaldeko ardiak bezain ontsa ezagutzen ditu gizon horrek, izenak eta oro. Badaki nundik norat ari diren, eta zer bothere gaitzak dituzten, xitako arroltzeen huts egin arazteko, ala itsasuntzi baten uzkaileteko, ala bortz zangotako aratxe baten sor-arazteko!

AKIBA: Eta zuk sinesten?

AITASO: Ez dauiat erranen ene sinestean berri: erraiten dautzuet bakharrik zer duen harek irakurtzen izarren zirrimarretan. Berri-berritan Arabiako aldetik izar berri bat iksuten omen du, argi-argia, egun guzietz, eskualde hauietarat buruz heldu dena: hori ere zerbaiten seinalea izan behar da!

NATAN: Gure aphez batek ere kondatzen zaukun larunbatean, ba omen dela Jerusalemeko tenploan jakintsun xahar bat, Simeon, zernahi liburu egin duena: bethi eskaintzetako aldarearen ondoan jarria omen dago, haur sortu berriak harat ekhartzen baitituzte, ikusteko ea, Jainkoari eskaini harren artean, ez duenez Mesias ezagutuko.

ABNER: Hala-hala Aser jendakiako emazte batek ere Salbatzailea ikusi gogo du... Andere saindu horrek badituzke orai lauetan hogoi eta hamar urthe hurbil... Orduan...

AKIBA: Geroak erranen du.

II

JONATAN (sartzen delarik): Gau on, adixkideak!

DENEK: Gau on, Jonatan!

AITASO: Zer da berri larre hoitan?

JONATAN: Izialdura bat ona bildu dutala oixtion... Betelemetik hunatekoan, ezagutzen duzue, hantxet, ezkerretarik, ardien harpea?

DENEK: Ba...

JONATAN: Han iragaitean, zer ikusten dut? Ilunbeka ibilki, bi arrotz: gizon bat eta neskato bat. Ahapeka bezala mintzo ziren: asto bat bazuten berekin, eta harpean sartu dira esku-argi handi batekin...

AITASO: Zer kara zuten.

JONATAN: Nik Egyptoko buhami batzuentzat utzi ditut... Eta emekiño hurbildu niz barrandatzeko zer ari ziren: gizonak jateko poxi bat hartu du alportxetarik; othoitza egin dute halere: bainan erran behar dut neskatoak ez duela deusik jan; biziki nekatua iduri zuen; lasto-garba baten gainean jarri da, erdi-etzanik, pausatzeko bezala... Gizonak jatean halako pena batekin so egiten zion bere laguntto hari, eta ogi puxka batzu ere astoñoari emaiten ziozkan artetarik...

JOHAÑI: Jende gisakoak dira beharbada?

JONATAN: Gisakoak? Ja, ja, ez sobera fida saindu-aire hoieri! Jende mindulin hoietarik ez uste izan deus onik! Abisatzerat jin nitzaitzue kasu egiteko, zuen onetan. Orobat, bihar goizeanj ardi bat edo bildotx bat faltatuko zaitzue... ez baduzue kasu egiten!

ABNER: Bethi komedia bera mundu huntan! Bethi bi begiak harmaturik orori barrandan egon behar!

(Hainbertzenarekin urrunera aditzen da Eguberriko kantika ezti-ezti bat, airea, hitzik gabe: Oi eguberri gaua!)

JOHAÑI: To? Zer da hau? Soinu bat?

NATAN, ABNER, AITASO: Hala duk!

AKIBA: Nik ez dut fitsik aditzen! Beharriak tutatu zaizkitzue naski!... Eta, adixkidea, zonbat urthe ditik, hire iduriko, delako erromes horrek?

JONATAN: Nik dakita? Hogoi bat urthe beharbada!

(Berriz ere kantua ezagun)

AITASO: Aldi huntan haatik ez dut beharri-tutatik! Oh! Eta... zer ditake hor heldu zaukun mamu xuria!

III

(Oro harrituak daude, aingeru bat heien arterat sortzearekin argi-argia, kantua bethi aintzina ari delarik...)

AIINGERUA: Artzain maiteak, ez izan bledurrik; ez dautzuet minik eginen!

AITASO: Nor zaitugu, fagorez, Jauna edo... Anderea!

AIINGERUA: Zerutikako mezularia!

JOHAÑI: Bas-anderea, beharbada?

AIINGERUA: Ez, bas-anderea ez! Basanderea ez da ametsetan baizik bizitzen, eta ez du ametsez bertzerik deus ere ekhartzen!

AKIBA: Nor zira ba?

AIINGERUA: Aingerua.

(*Oro belaunikatzen dira*)

DENEK: Aingeru bat!

AINGERUA: *Amen, amen, amen!*

Lur-alde, itsaso eta zeruetan

Goretsia, onetsia eta jauretsia izan bedi

Orai, gero eta bethi

Orotako Jaun maitagarri eta zuzen bakarra!

Amen, amen, amen!

Xuti zaitetze, artzainak! Eta jakizue Jainkoa urrikaldu zaiola bere populuari; denborak ethorriak dira; Mesias gau huntan sortu da, bildotx baten pare, aberetegi txar batean/

AITASO: Eta Jauna, utziko othe gaituzte haren adoratzera?

AINGERUA: Betelemetik hunatekoan ezagutzen duzue, hantxe, ezkerretarik ardien harpea (Denek JONATANI so) Idiaren eta astoaren artean haur sortu berri bat aurkituko duzue, abere-aska batean etzanik. Hura da. Adora-zazue.

Amen, amen, amen!

Lur-alde, itsaso eta zeruetan

Goretsia, onetsia eta jauretsia izan bedi

Orai, gero eta bethi

Orotako Jaun maitagarri eta zuzen bakarra!

Amen, amen, amen!

(*AINGERUA badoa, argia eta kantua histen delarik*)

IV

AITASO: Ustegabeko ixtorioa!... Haurrak zoazte, zoazte berehala erregerenganat! Ni xaharregi naiz... Ardiak zainduko ditut...

(*Oro badoatzi lehiakara*)

AITASO: Jainko Jauna, ni ez naiz aski azkar izanen gazte hoieri jarraikitzeke, eta zure Mesiasen adoratzeko. Berdin balio du, Jauna: nahiz ez dudan ikusten, sinesten dut! Eta zure Semea hemendik nahi dut aphalki adoratu!

(*Belhaunikatzen da*)

AINGERUA (*agertzen zaio*): O artzain fededuna! Ikusi gabe sinetsi baituzu, huna nun heldu nitzaitzun Jainkoak berak igorririk!

Erranen dautzut zer gerthatzen den Betelemeko heian: Jesus Haur ttipi dibinoa, aingeruz inguratua da; ardi eder batek ditiratzen mendi-alde guzian.

Batze guzietarik artzainak deitu ditugu haur horren oinetarat eta xendra guzietan lasterka heldu dira harperat buruz...

Harat orduko, belhaunikatzen dira, beren eskaintzak egiten dituzte, nork bildotx, nork gasna, eta denak kantuz hasten, beren bozak aingeruenekin juntatzen dituztelarik...

(*Kantua hasten da gero ta azkarrago*)

AINGERUA: Heldu berri guziek nahi dituzten beren othoitzak eta kantuak juntatu, eta hola-hola doake, erresumaz erresuma, menderen mende Jesusen izena ikasiko duten herri handi eta ttipi guzietan...

*(Orduan Aingeruak populua ere kanta-arazten du, eta kobla bururatzen denean,
hesten da oihala)*

*Oi eguberri gaua!
Borzkariozko gaua!
Borzkariatzen duzu
Bihotzetik krixtaua!*

PIERRE ITHURRALDE